

**OHIKO OSOKO BILKURA / PLENO ORDINARIO**

**2019KO MAIATZAREN 27A / 27 DE MAYO DE 2019**

**BERTARATUAK / ASISTENTES**

**JARDUNEKO ALKATE-UDALBURUA / ALCALDE-  
PRESIDENTE EN FUNCIONES**

D. Miguel de los Toyos Nazábal jauna (PSE-EE)

**JARDUNEKO ALKATEORDEAK / TENIENTES DE  
ALCALDE EN FUNCIONES**

D. Alberto Albistegui Zamacola jauna (PSE-EE).  
D. Pedro Escribano Ruiz de la Torre jauna (PSE-EE).  
Dña. Ana Telleria Echeverria andrea (PSE-EE).  
D. Arcadio Benítez Dávila jauna (PSE-EE).  
D. Francisco Javier Lejardi Galarraga jauna (PSE-EE).  
D. Jon Iraola Iriondo jauna. (PSE-EE).

**IDAZKARI NAGUSIA / SECRETARIO  
GENERAL**

D. Juan Agustín Villafranca Bellido  
jauna

**JARDUNEKO ZINEGOTZIAK / CONCEJALES  
EN FUNCIONES**

Dña. Idoya Sarasqueta Aramburu andrea (PSE-EE).  
Dña. Patricia Arrizabalaga Larrañaga andrea (PSE-EE).  
Dña. Maria Isabel Larrauri Arriaga andrea (PSE-EE).  
Dña. Igone Lamarain Cobo andrea (Euskal Herria Bildu).  
D. Josu Cristobal Churruca jauna (Euskal Herria Bildu).  
D. Gorka Errasti Bernedo jauna (Euskal Herria Bildu).  
Dña. Ana Francisca Astigarraga Arrizabalaga andrea  
(Euskal Herria Bildu).  
D. Iñaki Penedo Eubieta jauna (Euskal Herria Bildu).  
Dña. Eva Juez Garmendia andrea (Eibarko EAJ-PNV).  
D. Jaime López de Guereñu Urisabel jauna (Eibarko EAJ-  
PNV).  
Dña. Maria Mercedes Garate Larrañaga andrea (Eibarko  
EAJ-PNV).  
D. Josu Mendicute Rodríguez jauna (Eibarko EAJ-PNV).  
Dña. Maria elena Ibañez Anucibay andrea (Eibarko EAJ-  
PNV).  
Dña. María Jesús Aguirre Unceta andrea (Irabazi).

Eibarko hirian, 2019ko maiatzaren 27an, arratsaldeko zazpi eta erdiak izanik, Udal Osoko bilkura egin zen ohiko bileran, udaletxeko Batzar Aretoan, goian aipaturiko jaun-andreek osatua.

Jarduneko Alkatea Presidente jaunak bilerari hasiera eman dio eta aztertu da honako

#### **GAI-ZERREDA**

**1. 2019ko otsailaren 25ean Udalbatzak egindako bilkurari dagokion akta-zirriborroa onartzea.**

**López de Guereñu Urisabel jaunak** zehaztu du irten egin zela bilkuratik gai-zerrendaren 10. puntua hastean, baina ez dago jasota berriz sartu zela galdera eta erreguen uean.

2019ko otsailaren 25eko ohiko osoko bilkurari dagokion akta bozkatu ondoren, López de Guereñu jaunak adierazitako zuzenketa sartuta, onartu egin da aldeko hamabost botoren

En la Ciudad de Eibar, a 27 de mayo de 2019 y siendo las diecinueve horas treinta minutos, se reunió en sesión ordinaria el Pleno Municipal, en el Salón de Plenos de la Casa Consistorial, formado por los/as señores/as anteriormente mencionados/as.

El Sr. Alcalde en funciones declara abierta la sesión y se procede a tratar el siguiente

#### **ORDEN DEL DÍA**

**1. Aprobación del borrador del acta correspondiente a la sesión de 25 de febrero de 2019.**

El Sr. **López de Guereñu Urisabel** recuerda que se ausentó al inicio del punto 10 del orden del día, pero no consta que se reincorporó en el punto correspondiente a ruegos y preguntas.

Sometida a votación el acta correspondiente a la sesión plenaria ordinaria de 25 de febrero de 2019, con la corrección indicada por el Sr. López de Guereñu, queda aprobada por

gehiengoarekin (PSE-EE eta Eibarko EAJ-PNV) eta sei abstentziorekin (Euskal Herria Bildu eta Irabazi).

## **2. Alkatetzaren ebazpenen kontu-ematea.**

Azaroaren 28ko, Toki Erakundeen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Araudiari buruzko 2568/1986 Errege Dekretuaren 234. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, alkate-udalburu jaunak azken osoko bilkura arruntetik hona emandako Alkatetzaren ebazpenen edukiaren berri eman du.

Udalkideak jakitun geratzen dira.

## **3. 2018ko abenduaren 31ko Udal Inbentarioari onespena emateko proposamena.**

**Mendicute Rodríguez jaunak** eskatu du xede jakinik ez duten udal etxebizitzaren balorazio bat egitea gero salmentarako jartzeko, 2016, 2018 eta 2019 urteetako aurrekontu-akordioetan jasotzen den bezala.

mayoría de quince votos a favor (PSE-EE y Eibarko EAJ-PNV) y seis abstenciones (Euskal Herria Bildu e Irabazi).

## **2. Dación de cuentas de Resoluciones de Alcaldía.**

De acuerdo con lo previsto en el artículo 234 del Real Decreto 2568/1986, de 28 de noviembre, por el que se aprueba el Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales el Sr. Alcalde-Presidente da cuenta del contenido de las Resoluciones de Alcaldía dictadas desde la última sesión plenaria ordinaria.

Los miembros de la Corporación se dan por enterados.

## **3. Propuesta de aprobación del Inventario Municipal a 31 de diciembre de 2018.**

El **Sr. Mendicute Rodríguez** solicita que se realice una valoración de las viviendas municipales que no tienen asignado un destino concreto para su posterior venta, tal y como consta en

Era berean, jakin nahiko luke zer egoeratan dagoen duela 8 urte udal lokal baten eta Jardinetako meskitaren artean adostu zen trukea.

**Jarduneko Alkate-Udalburu jaunak** esan du aurrekontu-konpromiso bat dagoela xede jakinik ez duten udal ondasunak desjabetzeko eta, zentzu horretan, Zerbitzu sailak udal jabetza guztien zerrenda bat egin duela.

Bigarren gaiari dagokionez, musulmanen komunitateak eskatu du Jardinetako udal lokala erabiltzen jarraitzea, harik eta kokapen berria zaharberritzeko obrak ordaintzeko adina dohaintza lortu arte. Halaber, aitortu du lokal hori ez litzatekeela okupatuta egon behar eta salgai jarri beharko litzatekeela.

**Mendicute Rodríguez jaunari** harrigarria egiten zaio lokal publiko bat 8 urtean prekarioan erabili izana, inolako aurretiazko akordiorik gabe eta Udalbatzak horren berri izan gabe. Halaber, harrituta dago, zeren San Andreseko organoa edo parrokiako kanpandorrea konpontzea eskatu denean PSE-EE udal taldeko zinegotzi

los acuerdos presupuestarios de los años 2016, 2018 y 2019.

Así mismo, desearía saber en qué situación se encuentra la permuta que se acordó hace 8 años entre un local municipal y la mezquita de Jardineta.

**El Sr. Alcalde-Presidente en funciones** confirma que existe un compromiso presupuestario para enajenar aquellos bienes inmuebles sin un fin concreto asignado y, en este sentido, el Departamento de Servicios ha confeccionado un listado con todas las propiedades municipales.

Respecto a la segunda cuestión, la comunidad musulmana ha solicitado continuar utilizando el local municipal de Jardineta hasta que consigan las donaciones suficientes para costear las obras de reforma de su nueva ubicación. Igualmente, reconoce que ese local debería estar desocupado y proceder a su venta.

**El Sr. Mendicute Rodríguez** se sorprende por el hecho de que un local público se venga utilizando durante 8 años en precario sin ningún tipo de acuerdo previo y sin que la Corporación haya tenido conocimiento de ello. El motivo de su sorpresa viene motivado también porque, cuando se ha solicitado el arreglo del órgano o de la

batzuek esan dute hori ordaintzea eliztarrei dagokiela. Beraz, ez daki ez ote gauden alkate-udalburu jaunak mezkitaeren erabiltzaileekin hartutako hauteskunde-konpromiso baten aurrean.

**Jarduneko Alkate-Udalburu jaunak** erantzun du ez dagoela inolako hauteskunde-konpromisorik kontu hau duela 8 urteko gai bat delako, eta Udalak harreman onak dituela erlijio guztiekin. Halaber, argitu du ez dela inolako eskaera formalik jaso San Andres parrokiako organoa konpontzen laguntzeko, baina, hala balitz, aztertuko dela ea kultur intereseko ondasun bat ote den.

**Mendicute Rodríguez jaunak** argitu du eskaera hori Eibarko EAJ-PNV udal taldeak udal aurrekontuari egindako zuzenketa batean sartu zela.

**Jarduneko Alkate-Udalburu jaunak** bereizi egin ditu negoziazio politiko bat eta parrokiak udalari egindako eskaera formal bat, eta esan du azken hori ez dela gertatu oraingoz. Baina, aitzitik, Udalak parte hartu zuen

torre de la parroquia de San Andrés, algunos ediles del grupo municipal del PSE-EE han respondido que eso corresponde sufragarlo a los fieles. Por tanto, desconoce si estamos ante un compromiso electoral que el Sr. Alcalde-Presidente ha podido asumir con los fieles de la mezquita.

**El Sr. Alcalde-Presidente en funciones** responde que no existe compromiso electoral alguno puesto que este asunto se remonta a hace 8 años y que el Ayuntamiento mantiene buenas relaciones con todas las confesiones religiosas. Así mismo, aclara que no se ha recibido ninguna petición formal para colaborar en el arreglo del órgano de la parroquia de San Andrés, pero, en caso de que así fuera, se estudiará si se trata de un bien de interés cultural.

**El Sr. Mendicute Rodríguez** aclara que esa petición se incluyó en una enmienda del grupo municipal de Eibarko EAJ-PNV al presupuesto municipal.

**El Sr. Alcalde-Presidente en funciones** distingue lo que es una negociación política de una solicitud formal al Ayuntamiento por parte de la parroquia que hasta la fecha no se ha producido. En cambio, sí se atendió la

eraikin erlijioso horren teilatuaren zati bat konpontzeko lanetan.

**Aguirre Unceta andreak**, 2017ko Inventarioa 2018koarekin alderatuta, egiaztatu du milioi eta erdi euroko igoera bat gertatu dela, nahiz eta kontzeptu ezberdinen kopuruak ez aldatu, ondasun higigarri eta higiezinak izan ezik.

**Jarduneko Alkate-Udalburu jaunak** erantzun du Ondasun eta Eskubideen Inventarioa egitea lan tekniko hutsa dela.

petición de colaboración para el arreglo de parte del tejado del mismo edificio religioso.

La **Sra. Aguirre Unceta** ha constatado al comparar los datos del Inventario de 2017 con los de 2018 que se ha producido un incremento de valor de millón y medio de euros, a pesar de que las cantidades de los diferentes conceptos no han variado, a excepción de los bienes muebles e inmuebles.

El **Sr. Alcalde-Presidente en funciones** responde que la confección del Inventario de Bienes y Derechos es un trabajo eminentemente técnico.

## IRIZPENA

Udal Idazkariak 2018ko abenduaren 31ko Udal Ondasunen Inventarioa aurkeztu du, Toki Erakundeetako Ondasunen Araudiaren 34. artikulua dioenari jarraituz.

Kontuan hartuta 2019ko maiatzaren Kontu, Ogasun eta Ondare Lan Batzordearen aldeko irizpena.

## DICTAMEN

El Secretario Municipal presenta el Inventario de Bienes a fecha 31 de diciembre de 2018, en aplicación del art. 34 del Reglamento de Bienes de las Entidades Locales.

Considerando el dictamen favorable de la Comisión de Cuentas, Hacienda y Patrimonio, de 20 de mayo de 2019.

Osoko Bilkurak, aldeko hamar botoren gehiengoarekin (PSE-EE) eta hamaika abstentziorekin (Euskal Herria Bildu, Eibarko EAJ-PNV e Irabazi), ondokoa erabaki du:

El Pleno de la Corporación, por mayoría de diez votos a favor (PSE-EE) y once abstenciones (Euskal Herria Bildu, Eibarko EAJ-PNV e Irabazi), adopta el siguiente:

#### ERABAKIA

#### ACUERDO

2018ko abenduaren 31ko Udal Ondasunen Inbentarioa ONARTZEA.

APROBAR el Inventario Municipal de Bienes a 31-12-2018.

### **2017KO INBENTARIOAREN BALORAZIOA / VALORACIÓN INVENTARIO 2017**

1. KAPITULUA / 1º CAPÍTULO	HIGIEZINAK/INMUEBLES	117.984.632,23
2. KAPITULUA / 2º CAPÍTULO	ESKUBIDE ERREALAK / DERECHOS REALES	69.888,23
3. KAPITULUA / 3º CAPÍTULO	IZAERA HISTORIKOKO ONDASUNAK/ BIENES DE CARÁCTER HISTÓRICO	134.448,65
4. KAPITULUA / 4º CAPÍTULO	BALORE HIGIGARRIAK / VALORES MOBILIARIOS	421.889,12
5. KAPITULUA / 5º CAPÍTULO	IBILGAILUAK / VEHÍCULOS	730.406,83
6. KAPITULUA / 6º CAPÍTULO	ABEREA/SEMOVIENTE	570,96
7. KAPITULUA / 7º CAPÍTULO	ALTZARIAK/MUEBLES	5.408.057,51
8. KAPITULUA / 8º CAPÍTULO	ONDASUN ETA ESKUBIDE ITZULGARRIAK / BIENES Y DERECHOS REVERTIBLES	776.586,84
<b>GUZTIRA/TOTAL</b>		<b>125.526.480,37</b>

## 2018KO ALTAK

01. HIGIEZINAK / INMUEBLES	539.442,34
02. ESKUBIDE ERREALAK / DERECHOS REALES	0,00
03. IZAERA HISTORIKOKO ONDASUNAK / BIENES DE CARÁCTER HISTÓRICO	0,00
04. BALORE HIGIGARRIAK / VALORES MOBILIARIOS	0,00
05. IBILGAILUAK/VEHÍCULOS	18.977,00
06. ABEREA/SEMOVIENTE	0,00
07. ALTZARIAK/MUEBLES	164.771,50
08. ONDASUN ETA ESKUBIDE ITZULGARRIAK / BIENES Y DERECHOS REVERTIBLES	0,00
<b>ALTAK GUZTIRA / TOTAL ALTAS</b>	<b><u>723.189,84</u></b>

## 2018KO BAJAK

01. HIGIEZINAK / INMUEBLES:	157.768,79
02. ESKUBIDE ERREALAK / DERECHOS REALES:	0,00
03. IZAERA HISTORIKOKO ONDASUNAK / BIENES DE CARÁCTER HISTÓRICO	0,00
04. BALORE HIGIGARRIAK / VALORES MOBILIARIOS	0,00
05. IBILGAILUAK/VEHÍCULOS	19.232,39
06. ABEREA/SEMOVIENTE	0,00
07. ALTZARIAK/MUEBLES	141.926,40
08. ONDASUN ETA ESKUBIDE ITZULGARRIAK / BIENES Y DERECHOS REVERTIBLES	0,00
<b>BAJAK, GUZTIRA / TOTAL BAJAS</b>	<b><u>318.927,58</u></b>

ALTAK/ALTAS



<b>1.01</b>		<b><u>ERAIKUNTZAK/CONSTRUCCIONES</u></b>	
MAT	18-00001	Sansaburun haur-eskolan egindako eraberritzea/ Reforma en edificio parvulario Sansaburu.	142.839,41
	20-00001	San Andres Ikasteetxean egindako eraberritzea /Reforma en Grupo Escolar San Andrés	231.908,92
		<b>GUZTIRA/TOTAL</b>	<b>374.748,33</b>
<b>1.02</b>		<b><u>SOLARES</u></b>	
	1037-00008	Sakuneko lursaila /Terreno en Sakun	14.772,73
		<b>GUZTIRA/TOTAL</b>	<b>14.772,73</b>
<b>1.07</b>			
MAT	1059-00000	Fray Martin Mallea kalean egindako obrak / Remodelación C/Fray Martin Mallea	149.920,28
		<b>GUZTIRA/TOTAL</b>	<b>149.920,28</b>
<b>1.08</b>			
MAT	222-00000	Mandiolan bailaran landa-lursaila / Parcela rústica en Mandiola Valle	0,00
		<b>GUZTIRA/TOTAL</b>	<b>0,00</b>
<b>5.01</b>		<b><u>IBILGAILUA/VEHICULOS</u></b>	
MAT	1-20528	Udaltzaingorako Kia Niro 1,6 HV zuria / Kia Niro 1,6 HV blanco Policía Municipal	18.977,00
		<b>GUZTIRA/TOTAL</b>	<b>18.977,00</b>
<b>7.01</b>		<b><u>HIRI-ALTZARIAK / MOBILIARIO</u></b>	
		ALTEN LABURPENA / RESUMEN ALTAS	164.771,50
		<b>GUZTIRA/TOTAL</b>	<b>164.771,50</b>
		<b>2018EKO ALTAK GUZTIRA / TOTAL ALTAS</b>	<b>723.189,84</b>

## BAJAK/BAJAS

<b>1.01</b>			2
	1067-0000	Imesako 17 garajeak / 16 Garajes de Imesa	157.768,79
		<b>Guztira / Total</b>	<b>157.768,79</b>
<b>5.02</b>		<b><u>IBILGAILUAK / VEHICULOS</u></b>	
	108-14853	Jeep Land Rover	19.232,39
		Total	<b>19.232,39</b>
<b>7.01</b>		<b><u>ALTZARIAK / MOBILIARIO</u></b>	
		BAJAK, LAPURPENA / RESUMEN BAJAS	141.926,40
		<b>Guztira / Total</b>	<b>141.926,40</b>
		<b>Guztira Bajak / Total bajas 2018</b>	<b>318.927,58</b>

### **VALORACIÓN INVENTARIO 31-12-2018 / 2018-12-31 INBENTARIOAREN BALORAZIOA**

1. KAPITULUA / 1º CAPÍTULO	HIGIEZINAK/INMUEBLES	118.366.305,78
2. KAPITULUA / 2º CAPÍTULO	ESKUBIDE ERREALAK / DERECHOS REALES	69.888,23
3. KAPITULUA / 3º CAPÍTULO	IZAERA HISTORIKOKO ONDASUNAK BIENES DE CARÁCTER HISTÓRICO	134.448,65
4. KAPITULUA / 4º CAPÍTULO	BALORE HIGIGARRIAK / VALORES MOBILIARIOS	421.889,12
5. KAPITULUA / 5º CAPÍTULO	IBILGAILUAK / VEHÍCULOS	730.151,44
6. KAPITULUA / 6º CAPÍTULO	ABEREA/SEMOVIENTE	570,96
7. KAPITULUA / 7º CAPÍTULO	ALTZARIAK/MUEBLES	5.430.902,61
8. KAPITULUA / 8º CAPÍTULO	ONDASUN ETA ESKUBIDE ITZULGARRIAK / BIENES Y DERECHOS REVERTIBLES	776.586,84

GUZTIRA/TOTAL

125.930.743,63

#### 4. Galderak eta erreguak.

- **Garate Larrañaga andreak** galdetu du ea berririk dagoen udal eraikinetako garbiketa-langileek duten lan-gatazkaren inguruan, azken bilkura egin zenetik.

**Jarduneko Alkate-Udalburu jaunak** erantzun du eguneratu egin direla enpresak langileen pentsio-planei eginiko ekarpenak eta ikertzen ari direla baldintza-agirien beste urratze posible batzuk. Halaber, jakinarazi du txostenak eskatu dizkiela Idazkaritza, Kontu-hartzailletza, Langileria eta Zerbitzu sailei, beren esparruetatik balora dezaten zerbitzua udalekotzea 2020ko urtariletik aurrera; izan ere, kostu ekonomikoa antzekoa izango litzateke, baina enpresa bitartekaria desagertzean, zerbitzua era egokian ematea kontrolatuko luke Udalak. Hala balitz, udalekotze hori langileen ordezkariekin adostuko da eta Udal Bilkuran onartu beharko da.

#### 4. Ruegos y preguntas.

- La **Sra. Garate Larrañaga** pregunta si ha existido alguna novedad en el conflicto laboral que mantienen las trabajadoras de limpieza de los edificios municipales desde la celebración de la última sesión plenaria.

**El Sr. Alcalde-Presidente en funciones** responde que se han actualizado las aportaciones de la empresa a los planes de pensiones de las trabajadoras y se están investigando otros posibles incumplimientos de los pliegos de cláusulas. Al mismo tiempo, comunica que ha solicitado informes a los Departamentos de Secretaría, Intervención, Personal y Servicios para que valoren desde su ámbito la municipalización del servicio a partir de enero de 2020, dado que el coste económico sería similar pero, al desaparecer la empresa intermediaria, el Ayuntamiento controlaría que el servicio se prestase de forma óptima. En su caso, esa municipalización se consensuará con la representación de las trabajadoras y deberá aprobarse en Pleno.

**Errasti Bernedo jaunak** azpimarratu du udalekotze horren alderdi kezkarriena langileen subrogazioarena dela.

**Jarduneko Alkate-Udalburu jaunak** azaldu du beste esperientzia batzuk aztertzen ari direla, hala nola subrogazioa lan-kontratadun mugagabeko langile ez finkoen bidez egitea; kasu horretan, pertsona horien lanpostuak iraungi egingo lirateke.

- **Aguirre Unceta andreak** jakin nahi du ea berririk dagoen aterpearen kokapena dela-eta, iaz Eskualdeko Mahaian zerbait egingo zela komentatu baitzen.

**Sarasqueta Aramburu andreak** adierazi du Gizarte Zerbitzuetako arduraduna eta bera joan den otsailean bildu zirela Tolosan Gizpuzkoako Foru Aldundiko eta eskualdetako ordezkariekin Gizarte Zerbitzuetako Maparen egoera aztertzeko xedez. Bilera hartan, foru entitatea prest azaldu zen zerbitzu hori mankomunatzeko; berriki egin den hauteskunde-prozesua dela-eta, lan teknikoa baino ez da egin, laster aurkeztuko dena kokapen posibleekin batera.

El **Sr. Errasti Bernedo** destaca que el aspecto que más preocupa de esa municipalización es la subrogación del personal.

El **Sr. Alcalde-Presidente en funciones** explica que se están analizando otras experiencias en las que se ha producido la subrogación mediante la figura del personal laboral indefinido no fijo, cuyos puestos serían a extinguir.

- La **Sra. Aguirre Unceta** desea saber si hay alguna novedad en relación con la ubicación del refugio, tal y como se comentó el pasado año en la Mesa Comarcal.

La **Sra. Sarasqueta Aramburu** expone que la responsable de Servicios Sociales y ella misma se reunieron el pasado mes de febrero en Tolosa con representantes de la Diputación Foral de Gipuzkoa y de las diferentes comarcas con el objeto de analizar la situación del Mapa de Servicios Sociales. En dicha reunión, la entidad foral mostró su disposición a mancomunar ese servicio, pero, debido al reciente proceso electoral, únicamente se ha realizado el trabajo técnico que será presentado próximamente junto con las posibles ubicaciones.

- **Aguirre Unceta andreak** 16 etxebizitzaren truke posible bati buruz galdetu du.

**Jarduneko Alkate-Udalburu jaunak** erantzun du hitzarmen-proposamen bat dagoela, mahaiaren laguntza babes faltagatik, harik eta Eusko Jaurlaritzak etxebizitza berriak eraikitzeko proiektua igorri arte, zeina Udaltzaria berriak baloratu beharko duen. Oraingoan, bakarrik dago 2012ko proiektu bat, non jasotzen den obren etxebizitzari zuzenean eragingo zizkion eta eragin hori konpontzeko proposatzen zen edo etxebizitza horiek saltzea, jabeek uste badute eragina funtsezkoa dela, edo Eusko Jaurlaritzak Egazlain eraiki behar dituen 36 etxebizitzetako baten bidez trukitzea.

- **Aguirre Unceta andreak** galdetu du Aurrekontu Parte Hartzaileen Ordenantzari buruz.

**Telleria Echevarria andreak** gogorarazi du azken Udaltzaria hitz eman zuela udal taldeekin bilduko zela, baina orain arte ez dela posible izan data bat adostea. Dena den, saiatuko da berriz ere taldeak deitzen.

- La **Sra. Aguirre Unceta** pregunta por una posible permuta de 16 viviendas.

El **Sr. Alcalde-Presidente en funciones** responde que existe una propuesta de convenio que se dejó sobre la mesa por falta de apoyo hasta que el Gobierno Vasco remitiera el proyecto de construcción de nuevas viviendas, que deberá ser valorado por la nueva Corporación. De momento, únicamente existe un proyecto de 2012 en el que se recogen una serie de afecciones que se solucionarían, bien con la venta de aquellas viviendas cuyos propietarios entiendan que la afección es sustancial, o bien mediante la permuta con una de las 36 viviendas que el Gobierno Vasco prevé construir en Egazlain.

- La **Sra. Aguirre Unceta** se interesa por la Ordenanza de Presupuestos Participativos.

La **Sra. Telleria Echevarria** recuerda que en el último Pleno se comprometió a reunir a los diferentes grupos municipales, aunque hasta el momento no ha sido posible acordar una fecha. De todas maneras, volverá a intentar la convocatoria.

- **Mendicute Rodríguez jaunak** uste du lotsagarria dela Udalaren webgunean, maiatzaren 24an, (azken lan-eguna toki-hauteskundeen aurretik) albiste bat argitaratzea iragarriz Errebal kalea, Ibarkurutze eta Julian Etxeberria kaleen arteko zatian, koexistentzia-gune bat izango dela, noiz eta egitasmo hori Obra Batzorde Aholkularian azaldu ere egin ez denean. Gertaera hori are larriagoa iruditzen zaio, izan ere, Julian Etxeberria kalerako beste proposamen batzuekin alderatuta, argudiatu zen Mugikortasun Planak eragotzi egiten zuela haiek egitea, harik eta Errebal erabilera anitzeko eraikinaren obrak amaitu arte.
- El **Sr. Mendicute Rodríguez** considera una indecencia la publicación en la página web del Ayuntamiento el pasado 24 de mayo (última jornada laboral antes de la celebración de las elecciones locales) de una noticia que anunciaba que la calle Errebal, en el tramo comprendido entre las calles Ibarkurutze y Julian Etxeberria, será un espacio de coexistencia, sin que este proyecto haya sido explicado en la Comisión Asesora de Obras. Este hecho le parece más grave si cabe porque, en relación con otras propuestas para la calle Julian Etxeberria, se argumentó que el Plan de Movilidad impedía materializarlas hasta que concluyeran las obras del edificio polivalente de Errebal.

**Benítez Dávila jaunak** erantzun du obra-proiektuak enkargatzeko ez dela beharrezkoa Batzordean eztabaidatzea, nahiz eta hau, zehazki, hainbat bider jorratu den. Halaber, adostu zen ez zela gunean esku hartuko Errebalgo parkinga amaitu arte eta, arrazoi horrengatik, oraindik ez da enkargatu Julian Etxeberria kaleko obren proiektua. Bestalde, zehaztu du adjudikatu dena zera dela: proiektua idazteko kontratua eta ez obrak egitekoa.

El **Sr. Benítez Dávila** responde que el encargo de proyectos de obras no es preceptivo que se debatan por la Comisión, a pesar de que éste en concreto se ha tratado en diversas ocasiones. Igualmente, se acordó que no se actuaría en la zona hasta que se finalizase el parking de Errebal y, por esta misma razón, aún no se ha encargado el proyecto de obras de la calle Julian Etxeberria. Por otra parte, matiza que lo que se ha adjudicado es el contrato para

la redacción del proyecto y no la ejecución de las obras.

**Penedo Eubieta jaunak** zehaztu du informazioan ez zela iragartzen proiektuaren adjudikazioa, baizik eta bermatu egiten zela gune hori koexistentziakoa izango zela, eta hori ez dago bermatuta. Horregatik, lotsagarria iruditzen zaio albiste hori gogoeta-jardunaldiaren bezperan argitaratu izana.

El **Sr. Penedo Eubieta** puntualiza que en la información no se anunciaba la adjudicación del proyecto, sino que se garantizaba que ese espacio sería de coexistencia, cuando de momento no está asegurado. Por esta razón, le parece vergonzoso que se publicase esta noticia la víspera de la jornada de reflexión.

**Benítez Dávila jaunak** esan du uste orokorra dela Errebal eta Julian Etxeberria kaleen artean egiten den edozer jarduketak koexistentzia-eredu bati erantzun beharko diola; hortaz, 2020ko udan Errebal eraikinaren obrak amaitzen direnean, beharrezkoa izango da kale egokia izatea.

El **Sr. Benítez Dávila** afirma que existe la convicción generalizada de que cualquier actuación que se lleve a cabo en las calles Errebal y Julian Etxeberria debe responder a un modelo de coexistencia; por tanto, cuando en verano de 2020 finalicen las obras del edificio de Errebal es necesario contar también con la calle adecuada.

**Penedo Eubieta jaunak** erantzun du, ez Eibarko EAJ-PNV udal taldearen bozeramaleak, ez berak ez dutela zalantzan jarri gune hori koexistentzia-leku izatea, baizik eta albistea bera.

El **Sr. Penedo Eubieta** replica que ni el portavoz del grupo municipal de Eibarko EAJ-PNV ni él mismo han cuestionado que esa zona deba ser de coexistencia, sino la noticia en sí misma.

**Benítez Dávila jaunak** esan du Udalak bere jarduketa guztiak argitaratzen dituela, baina aipatu diren izendapenak erabili gabe.

El **Sr. Benítez Dávila** comenta que el Ayuntamiento publica todas sus actuaciones pero sin calificativos como los que se han vertido.



Eta, eztabaidatzeko beste gairik ez dagoela, eta arratsaldeko zortzi eta erdiak izanik, Jarduneko Alkate-Presidente jaunak amaiera ematen dio Osoko Bilkurari, nik, Idazkari Orokorra modura horren fede ematen dudala.

Y no habiendo más asuntos que tratar, y siendo las veinte horas treinta minutos el Sr. Alcalde-Presidente en funciones levanta la sesión, de todo lo cual yo, el Secretario General, doy fe.

O.I. / Vº Bº

ALKATE UDALBURUA/

EL ALCALDE-PRESIDENTE,

IDAZKARIAK / EL SECRETARIO

Miguel de los Toyos Nazabal

Juan Agustín Villafranca Bellido